



FRANCISCO CARRIÓN



FRANCISCO CARRIÓN

NUBIARRAK

Egiptoko gutxiengo ahaztua

Nilo ibaiaren seme-alaba zaharrenak dira, baina haien lurretatik bota zituzten modernitatearen izenean. Nubiarrek aspalditik aldarrikatzen dute sorlekura itzultzeko eskubidea. Egiptoko Konstituzio berriak eskubide hori aitortu eta kalte-ordainak finkatu ditu.

| ANE IRAZABAL |

“LEKU-ALDATZE behartuak oso traumatikoak dira. Egun batetik bestera, bizitza guztia maletan sartu, eta atzera begiratu gabe berriz hastera derrigortzen zaituzte. Bihotza betiko urratzen da, sustraiari enborra mozten diotenean bezala”. Mohy Eddin olerkariak hala erantzuten du nubiar izaerari buruz galdetzen diotenean.

Mende erdi pasa da Eddin eta bere familiak haien lurak utzi behar izan zituztenetik eta halere, ez da Kairora ohitu: “Nekazariak eta arrantzaleak ginen, Nilo ibaia zen gure iturburua, baina Asuango presak pikutara bota zuen guztia”, azaldu du. Eddinena ez da adibide bakarra. XX. mendean zehar milaka nubiarrek haien herrixkak hustu zituzten urak dena estali baino lehen. Izan ere, hegoaldeko Egipto eta iparraldeko Sudan artean dagoen Nubia eskualdea Nasser lakuak urperatu zuen. “Gure arbasoen lurak, historia eta ondare arkitektonikoa ur azpian geratu ziren”, adierazi du Mohamed Hussein historialari nubiarrek. Hussein Kairon sortu zen, baina familia jatorriz Qasr Ibrim hirikoa da. Gotorleku horrek ezin hobeki azaltzen du nubiarren parabola. Hiriaren goialdea uholde handitik salbatu bazen ere, irla mamu bilakatu zen aintziraren erdian.



www.nobaa.com

Goiko argazkietan, Asuan gaur egun. Asuango presak 45 herrixka ur azpian utzi zituen eta 100.000 nubiar lekuz aldatzera behartu zituen (hitz hauen gaineko irudian).

Presaren biktimak

Nubia edo Nuba hitzak urrearen lurraldea esan nahi du eta ez da kasualitatea. Hegoaldeko indigenek urrez jantzitako tenplu eta piramide dotoreak eraiki zituzten mende luzez. Merkatarriak, nekazariak eta arrantzaleak

NUBIARRAK

ziren gehienak eta arabieraren aurreko hizkuntza nubiarrek hitz egiten zituzten. Gain-behera, baina, XX. mende hasieran abiatu zen. Niloren urtaroko ur-goraldiak kontrolatzeko eta argindarra sortzeko aburuz, Asuan inguruan bi presa eraikitzeko proiektuak jarri zituzten martxan Kairoko agintariek. Ezagunena, zalantzarik gabe, Gamal Abdel Nasser jeneralak asmatutako Presa Handia da. 1960-70 artean eraiki zen proiektu faraoniko horrek aintzira artifizial baten jaiotza bultzatu zuen Asuan hegoaldean.

Dezente hitz egin da presa handiak ekarri zituen onura ekonomikoen inguruan, baina inor gutxi mintzo da nubiarrek pairatu zituzten ondorioez. Izan ere, 45 herrixka ur azpian geratu ziren eta 100.000 herritar lekuz aldatzera derrigortu zituzten. Sudango nubiarrek Wadi Halfa eremura joan ziren eta egiptoarrak Nubia Berria izeneko kokalekuan ezarri zituzten. Haatik, askok eta askok hiri industrialetara alde egin zuten.

Hussein hitzak baliatuz, “Nasserrek esan zigun heroiak ginela eta paradisia merezi genuela. Baina zer jaso genuen trukean? Desertuaren erdian eraikitako herrixka artifizialak”. Leku-aldatze behartuak, gainera, nubiar identitatearen asimilazio prozesua ekarri zuen. “Nasserismoak egiptoar guztiak ekarri zituen panarabismora. Gutxiengoek ez zuten tokirik nazio arabiar bat sortzeko proiektuan. Nire aita Nasserren jarraitzaile sutua zen, eta askotan esan ohi zigun nubiarren banaketa gure onerako zela. Hipnosi nazionalistan bizi ginen”, gogoratu du Husseinek.

Itzultzeko eskubidea

Geroztik, nubiarrek bigarren mailako herritarrak izan dira egiptoarrentzat eta estereotipo zein aurreiritzi anitzei aurre egin behar izan diete. “Hedabideek eta zinemak erantzukizun handia daukate nubiarren inguruan ematen den irudi desitxuratuan. Morroi ezjakinak bagina bezala aurkezten gaituzte eta askok sudandarrak garela diote mespretxuz”, nabarmendu du Manal El-Teiby ekintzaileak.

Baina erbestealdiak ez du lortu diaspora bere sustraletatik urruntzea. Egipto zabalean ehunka elkarte eta kulturetxe sortu dira nubiar hizkuntza, kultura, dantzak eta ohiturak mantentzeko. Eddinek, adibidez, poesia irakasten die gazteei: “Nubia historikoan

hitz egiten ziren hizkuntza guztien informazioa biltzen ari naiz eta Egiptoko nubieran idazten dut”. Tunika zuria eta durbante tipikoa daramatza soinean, baina haserretu egiten da argazki bat eskatzen baldin badiote: “Hau ez da inauterietako mozorroa. Nire nortasuna islatzen du. Ez nintzateke eroso sentituko galtzak eta alkandora jantziko banitu”.

Harrigarriena gazte nubiarren mobilizazio gaitasuna da. Izan ere, gehienek alde egindakoen hirugarren belaualdia osatzen dute. Ahmed Naiem ekintzaileak Nubiako Gazteen Batzorde Demokratikoa izeneko mugimendua sortu du. Haren iritziz, “nubiarren auzia arazo politikoa da eta beraz, irtenbide politikoa eman behar zaio”. Nubiako mugimendu politikoek honako aldarrikapenak defendatzen dituzte: leku aldatuak izan zirenen ondorengoek Nasser aintziraren inguruko lurretara

itzultzeko eskubidea izatea, hizkuntza eta historia nubiarra mantentzeko hezkuntza programa bat abian jartzea eta nubiar kultura Egiptoko ondareztat jotzea. “Asuango eskoletan debekatuta dago nubiera irakastea, eta hori onartezina da. Zaharrak hiltzen ari dira eta gazte gehienek ez dute hizkuntza ulertzen. Nubiera desagertuko den beldur gara”, dio El-Teiby.

Edonola ere, urte askotako borrokaren ondotik Egiptok lehen garaipena aitortu die nubiarrei. 2014an onarturiko konstituzio berriak aintziraren ertzeko lurretara bueltatzeko eskubidea onartu du eta kalteordainak finkatu ditu. El-Teiby konstituzioa idazteaz arduratu den batzorde nagusiko kidea da eta pozik sumatu dugu: “Lan gogorra izan da nubiarren funtsezko aldarrikapen hori aitortzea. Egiptoarrak oso nazionalistak dira eta kostatu egin zaie herrialdearen izaera kultur anitza onartzea”.

Eskubide hori praktikara eramatea zaila izango da, ordea. Abdel Fatta Al-Sisiren gobernuak 45 herrixka nubiar eraikiko dituela esan du, baina erregimen militarren barruan banaketa handia dago. El-Teibyren iritziz, borondate politikoa falta da nubiar auzia errotik konpontzeko: “Araza ez da konponduko konstituzioan idazteagatik. Orain datorkigu zailena. Gobernuak zin egin digu aintziraren inguruak garatzeko

“Presa eraiki zuen Nasser jeneralak esan zigun heroiak ginela eta paradisia merezi genuela. Baina zer jaso genuen trukean? Desertuaren erdian eraikitako herrixka artifizialak”

Mohamed Hussein,
historialari nubiarra

Nubiarrek bigarren mailako herritarrak izan dira egiptoarrentzat eta estereotipo zein aurreiritzi anitzei aurre egin behar izan diete. “Morroi ezjakinak bagina bezala aurkezten gaituzte”



Mohamed Hussein (ezkerrean) eta Manal El-Teiby. Erbestealdiak ez du lortu diaspora bere sustriaietatik urrutzea. Egipto zabalean ehunka elkarte eta kulturetxe sortu dira nubiar hizkuntza, kultura, dantzak eta ohiturak mantentzeko.

plan estrategiko bat hasiko duela, baina ez ditu nubiarren eskaerak entzun nahi”. Alderdirik latzenetakoa demografia da, 1960ko hamarkadatik ez baita erroldarik egin Egipton bizi diren nubiarren kopurua ezagutzeko.

Barne bereizketa

Egiptoko botere faktikoez ere ez dute lagundu arazoa konpontzen. El-Teiby hedabideak kontrolatzen dituzten enpresariei egosten die ardura: “Traidoretzat jo gaituzte gure eskubideen onarpena aldarrikatzeagatik. Egiptoko segurtasunarentzat mehatxua garela esan ohi dute”, adierazi du. Naiemek ere antzeko salaketak entzun behar izan ditu: “Izaera politikoa eskuratu dugunetik gure komunitatea kriminalizatzen hasi dira, Egiptoko nazioa banatu nahi dugula eta atzerriko herrialdeek finantzatzeko gaituztela esanez”.

Ismail Iskandarani ikerlariaren aburuz, nubiarren kontrako kanpainak ez dira espontaneoak eta interes militarrei erantzuten diete. “Egiptoko armadak ez ditu aintziraren inguruko lurak eman nahi, horregatik, ezegonkortasunaren mamua astintzen hasi dira. Militarrek zabaldu nahi duten mezua da nubiarrek haien lurretara itzultzen badira

Euren lurretara itzultzeko eskubidea, hizkuntza eta historia nubiarra mantentzeko hezkuntza programa bat eta nubiar kultura Egiptoko ondaretzat jotzea dute aldarri

Sudango anaien ondora bueltatuko direla eta bloke etniko bat osatuko dutela”, irizten dio ikerlariak.

Halarik ere, etsaia etxean daukate nubiarrek. “Gure borroka ez da batere erromantikoa. Komunitateak gerra irekia bizi du elite ekonomiko zaharraren eta mugimendu berrien artean”, uste du Naiemek. Gazte ekintzaileari ardura puntu bat antzematen zaio: “Nubiako enpresari eta lider politikoki gehienek ez dute arazoa konpondu nahi. Aintziraren ertza turistikoki garatzeko jardunetan ari dira, gure onerako jokatzeko dutela dioten bitartean. Poltsikoak agintzen du beste behin”.

Nubiarra gizarte klasista da gainera. El-Teiby ez du arazorik errealitate hori onartzeko: “Azalaren koloreak klase soziala markatzen du gehienetan. Nubiarrek oso desberdinak gara; batzuk beltzak dira, beste batzuk zuriagoak, eta kategoriak sortu dira”. Izan ere, Nubia islamizatzerako joan ziren misio militar atzeritarrek begi urdineko eta azal argiko ondorengoak utzi zituzten. Eta *koshaf* bezala ezagutzen diren nubiar horiek elitizatzen joan dira luzaroan. “Zoritzarrez, gure artean dagoen barne gatazka kezkarriagoa da gobernu zentralarekin daukagun ika-mika baino”, erantsi du.

Nolanahi ere, El-Teiby, Naiem, Hussein eta beste milaka nubiar ez daude amore emateko prest. “Egoerak gaituzte nauela uste dudana bakoitzean, nire amonaren hitzak etortzen zaizkit burura”, gogoratu du Naiemek: “Itzul zaitez aintzirara eta ohora itzazu gure arbasoak”, esaten zidan, nubiera hutsean”. ■